

# Elkarri begira ez, elkarlanean



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU  
EUSKALTZALEA

**O**ldarraldia ari du EAEko administrazioa euskalduntzeko erabakien aurka, berriz ere, enegarren aldiz. Oraingoan berrikuntza eta guzti, espainiar epaitegiak eta alderdi eta sindikatu antieuskaldunak elkarlanean ari baitira. Ez dira izan akats tekniko-juridikoak zuzentzeko asmoz abiatutako ekinbideak; oinarri politikoa duten erasoak dira, autonomia mainguari emandako aizkorakadak. Horrek are argiago uzten du Espainiarrekiko independentzia lortu beharra, horretara jarri behar dugu berandu baino lehen. Edonola, bitartean, abertzaleon esku dauden erakundeetan saiatzea dagokigu, elkarri begira egon gabe, murruekin talka egin arren, erakunde horien erabakiak ere baliatzeko euskaldunok euskaraz bizi ahal izan gaitezten. Zeren, bestela, zertarako parte hartu erakundeetan?

Hain zuzen ere, 2014an, Gipuzkoako Foru Aldundian ginela antolatutako Euskararen Lehentasuna jardunaldian, Iñaki Agirreazkuenaga legelariak gogorarazi zuen epaileek baliogabetu

Bi alderdi abertzaleen ekinari esker, Udal Legearen oinarriak prest utzi ziren, tartean administrazioak euskaraz lehentasunez jarduteko neurriak ere

egin ditzaketela arauak, baina ez hala legeak. Horregatik, azpimarratu zuen egitekoak hemen ditugula, Eusko Legebiltzarrak eskumena baitu legeak egiteko. Agintaldi hartan, bi alderdi abertzaleen ekinari esker, Udal Legearen oinarriak prest utzi ziren, tartean administrazioak euskaraz lehentasunez jarduteko eta hirigintzak euskararen erabileran duen eragina malgutzeko neurriak ere. Ez zen lankidetzaren eredu bete-betea izan, baina erakutsi zuen nahi izatera abertzaleok baginela

euskararen aurrerabidearen alde jarduteko gai; gerora, Hezkuntza Legearekin gertatu ez bezala.

Bada lankidetzarako aski gai. Erasopean diren euskara eskakizunen harira, adierazia du Kontseiluak Funtzio Publikoko Legea egokitu beharra dagoela; zer esanik ez Euskararen Legea. Bestalde, hor dugu Kontsumitzaileen Hizkuntza Eskubideen araua, PSEk zikiratua, baina EAJk bere onera ekarri gabea, oraindik. Era berean, Eragin Linguistikoen Ebaluazioen eredu hiri-riburuetarako egokitu beharra dago, Donostiako Udalak Añorga Txikiko hirigintza egitasmoan erakutsi baitu araua funtsik gabe uzteko moduko erabilera egin daitekeela. Bide beretik, bada zereginik udalak euskalduntzeko lanean ere, hala nola Euskara Ordenantzak gainerako ordenantza eta arauekin uztartzea, eta horietan jasota dauden hizkuntza irizpideak betearazteko tresnak, baliabideak eta protokoloak ezartzea. Beraz, alderdi abertzaleok, elkarri begira egoteko baino elkarlanean aritzeko garaia dugu. ●

ESTREINALDIA

**ATERPEA**

Diskurtso faxisten dianan dauden herritarren aterpe

Martxoaren 12an hasita  
asteazkenean 21:30ean  
Hamaika Telebistan

hamaika